

KAXMIRREKO GAZA

Srinagar hiriburuko auzo bat aitzindari da errepresioaren aurkako protestetan


📁 **ATZERRIA** / Sarwar KASHANI

Indiako Gobernuak Kaxmir lurralde okupatuan ezarri duen salbuespen egoera izugarriak bertakoen manifestazioak erabat ekidin ditu. Aldiz, badago Srinagar hiriburuan auzo txiki bat protesten azken gotorleku bilakatu dena, Asterix eta Obelixen galiar herrixka balitz bezala Erromatar Inperioaren aurkako borrokan. Erakutsitako kemenarengandik, “Kaxmirreko Gazako Lerroa” bezala bataiatu dute Soura auzoa. Herrialde okupatuko Srinagar udako hiribururen kanpoaldean dago auzoa, eta, bertan, eguneroko kontua dira manifestazioak abuztuaren 5etik, hau da, New Delhik Kaxmirren “autonomia” bertan behera utzi zuenetik.

Indiako agintarien arabera, gehiengo musulmana duen herrialdeko estatu bakarrek, Kaxmirrek, «egoera berezia» bizi zuen gainerako estatuekin alderatuta. Ikurrin eta konstituzio propioa izateaz gain, bestelako “eskubide” batzuk ere bazituen, adibidez, Indiatik heldutako kolonoek etxebizitza edo lurak erosteko zailtasunak zituzten. Hori guztia okupazio militar bortitza ezkutatze ahaleginaren ondorio besterik ez zen, baina, behinik behin, herritarrei eskubide batzuk bermatzen zizkien.

Orain, «bateratze konstituzionala» onartu ostean, Indiako Armada eta Poliziak aurretik ere izugarria zen euren presentzia areagotu dute Kaxmirren. Pentsa, aurretik ere munduko altuena zen. Horrez gain, Indiak salbuespena egoera ezarri du, eta Internet eta telefono bidezko komunikazioak Internet moztu ditu. Horrela, Kaxmirren gertatzen ari

Indiak Kaxmirren estatus berezia bertan behera utzi zuenetik hilabetea bete den honetan, izugarria da herrialde musulmanaren aurkako errepresioa. Hori bai, Srinagar Kaxmirreko udako hiriburuko Soura auzo txikian eguneroko kontua dira protestak, New Delhiren haserrera. «Kaxmirreko Gazako Lerroa» ezizena ere jarri diote auzoari.



denaren gaineko informazioa mundura ez zabaltzea lortu nahi du Indiak, eta, horrek, manifestazio jendetsuen berri ez izatea ekarri du adibidez. Hala ere, protestak izan, izan dira, batez ere Srinagar inguruko auzo eta herrixketan.

Souraren kasuan, orain artean inork gutxiak zuen auzoaren berri. Bertako santutegi musulmanagatik, osasun zentroagatik eta guttiz kutsatutako laku zikinagatik soilik zen albiste. Egun, ordea, denen ahotan dago egunero polizia-aren aurka antolatzen dituzten manifestazioengatik. Harriekin egiten diete aurre tiroei.

BORROKARAKO ORDUA

Iluntzearekin batera iristen da egunero borrokarako ordua Souran. Eskura duten edozer baliatuta, barrikadak altxatu eta auzoko zortzi sarrerak ixten dituzte herritarrek, Soura bertako iturri anonimo batek Efe agentziari azaldu moduan.

Sourako protesten bideoak ikusienak bilakatu dira Kaxmirren, nahiz eta Indiako Gobernuak herrialde okupatua Internetik gabe duen. Eragozpenak eragozpen, irudiok eskualdearen aurkako erasoaren kontrako erresistentzia ikur bilakatu dira Kaxmir osoan.

«Inork ez digu agindu kalera irteteko, ezta politikari bakar batek ere. Nola aginduko digu norbaitek zer egin komunikazio guzti-guztiak moztuta baditugu?», nabarmendu dio Eferi Ashgar Hussainek. Sourako auzotarra da Hussain, baina ihes egin behar izan du bertatik segurtasun indarrak atzetik dituelako. Bere hitzetan, protesta guztiak espontaneoak dira. «Inork ez digu ezer agindu behar. Are, inork ez digu esan behar noiz eta non egin behar dugun protesta gu-

re nortasunaren, demografia-
ren eta kulturaren aurkako ta-
maina honetako erasoak jasan
ostean», gaineratu du gazteak.

Indiako agintariek ukatu
egin zuten lehen unean Sou-
ran manifestazioak zeudenik
eta protestaldietako bideoak
antzinakoak zirela ziurtatzen
saiatu ziren. Aldiz, manifesta-
riak pankartetan protesten da-
ta jartzen hastean, agintarien
gezurrak agerian geratu ziren.
Manifestariak “Kaxmir aske
batekin amesten dugu” eta
“Nazio Batuak, esna zaitezte!”
leloak ere zabaltu zituzte.

Kaxmirreko okupatzaileen
agintariak, Satya Pal Malik In-
diak izendatutako gobernado-
reak, azken asteotan polizia-
ren errepresioaren ondorioz
hildakorik ez dela egon ziurta-
tu du. «Herritarren bizia sa-
kratua da guretzat eta ez dugu
nahi bizi bakar bat ere galtzea.
Indarkeria erabili duten gutxi
batzuk soilik zauritu dira pro-
testaldietan, eta guztiek ere
zauriak gerritik behera dituzte»,
ziurtatu du asteon. Agin-
tariek, hori bai, Poliziak perdi-
goiak eta ke-bonbak erabili
dituela onartu dute.

«AHOLKUAK EMAN ETA ASKE»

Tokiko iturrien arabera, mila-
ka dira jada atxilotuak, politi-
kariak eta agintari indepen-
dentistak tartean, ikasleak eta
jende arrunta ahaztu gabe.
New Delhiko agintarien hitze-
tan, «bakea ziurtatzeko beha-
rezkoak» dira atxilotetok.

«Gazteak atxilotu, aholkuak
eman eta aske uzten ditugu.
Ez dugu atxilotuen kopururik
ematerik, baina ez dira asko»,
esan du Dilbagh Singh Kaxmi-
rreko poliziaburuak, egunotan
emandako prentsaurrekoan.
Atxilotu askoren senideek, ai-
tzitik, non dauden ere ez daki-
tela ziurtatu dute. «Presonde-



Aurreko orrialdean,
Indiako soldadua
Srinagarreko kaleetan.
Gaietako irudian,
liskarrak hiriburuko
auzo batean.
AFP

gira joan ginen informazio bi-
la eta presoak Kaxmirretik
kanpoko kartzelara bidali di-
tuztela esan ziguten», esan du
abuztuaren 4an atxilotu zuten
enpresari baten emazteak.

JADA HILABETE BAT

Hilabete bat bete zen asteazke-
nean abuztuak 4an Indiak
Kaxmirri buruzko berrien
kontrola ezarri zuenetik. Hu-
rrango egunean bertan, abuz-
tuaren 5ean, bertan behera
utzi zuen bertako estatus bere-
zia. Indiako Gobernuak ukatu

arren, iturri ofizialek gutxie-
nez bi hildakoren berri eman
dute jada ordutik izandako
ehunka protestetan. Iragan as-
teazkenean bertan, ospitalera
zaurituta eramandako gazte
bat hil zen, Srinagarreko poli-
ziaburu batek onartu duenez.
Hori bai, poliziaburuak ez du
bere izenik ematerik nahi izan.

Bien bitartean, okupatzaile-
ak salbuespen egoerak aurrei-
kusitako neurri denak indarre-
an jartzen ari dira pixkanaka
Kaxmirren zehar. Hala, he-
rrialdeko 111 polizia kuartele-

tatik 92ra gerturatzeko debe-
kua ezarri da, Internet eta tele-
fono mugikor bidezko komu-
nikazioak etenda daude...

Atxilotutakoen kopuru ze-
hatzik ez dago, baina politika-
rien artean soilik giltzapetuak
400 inguru direla uste da, tar-
tean Omar Abdullah eta Me-
booba Mufti gobernuburu
ohiak. Indiak sei kartzela za-
baldu edo inprobisatu behar
izan ditu eta Zentaur Lakeview
Hotelean politikariak ditu
atxilotuta.

Bere izena ezkutuan man-
tentzea nahiago izan duen po-
liziaburu batek onartu duenez,
kartzelak «jendez gainezka»
daude eta «gutxienez 140 la-
gun» Uttar Pradesh Indiako
iparraldeko Estatuko preson-
degietara eraman dituzte. Ego-
era larriaren erakusle, ehunka
ama eta aita pilatzen dira egu-
nero Srinagarreko polizia
etxeen atarietan semeen berri
eman diezaieten erregutuz.

**Indiako agintariek protesten irudiak antzinako
bideoak zirela ziurtatu zuten. Ordutik hona,
manifestariak pankartetan data jartzen dute
egunero, aldarrikapenei gaurkotasuna emanaz**

**Milaka eta milaka dira azken hilabetean
atxilotuak eta okupatzaileek sei kartzela berri
zabaltu behar izan dituzte. Ehunka preso
Kaxmir kanpoko espetxeetara bidali dituzte**